

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

3753

EBAZPENA, 2020ko irailaren 7koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakaritzako behin-behineko lanpostu bat kentzea xedatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz, eta Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren 6.3.e) artikuluan esleitutako eginkizunak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Enrique Ullibarriarana Errasti jauna Biktimen Harretarako koordinatzaile aholkulariaren kargutik kentzea (5258 kodea, 1 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu uzteak 2020ko irailaren 7an izango ditu eraginak.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 7a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.